


Maria Vinuesa eta Carles Gràcia

Xigortxo, munduan barrena



Intermón
Oxfam

Xigortxo, munduan barrena



Intermón
Oxfam

Sortaren zuzendaritza: Raquel León

Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

Aholkularitza-batzordea: M^a Àngels Alié, Carme Batet, Mireia Claverol, Anna Conangla, Montse López,
Juan Manuel Matos, Laura Mendoza, Elena Millá, José Palos, Ferran Polo, Vanessa Quintana, Maria Rico.

Ekoizpenaren koordinazioa: Elisa Sarsanedas

Azalaren eta barruko diseinua: Lluís Torres

1. argitaraldia: 2003 ko ekaina

© Autoretza: Maria Vinuesa, Carles Gràcia

© Apaingarriak: Àngel Sauret

© Intermon Oxfam

Roger de Llúria, 15. 08010 Bartzelona

Tel. 93 482 07 00. Faxe 93 482 07 07. E-mail. info@IntermonOxfam.org

ISBN: 84-8452-198-2

Lege-gordailua: B-26.240-2003

Errealizazioa: MC producció editorial / Pàgina 98

Inprimaketa: EGS, Rosario, 2 (Barcelona)

Espainian inprimatua

“Copyright-aren” titularren onarpenik gabe, liburu honen zati edo ale osoaren ugaritzea erabat debekatuta dago,
edozein delarik erabiltzen den modua edo prozedura.

Klororik gabeko paperean inprimatua.

Xigortxo




Marraz itzazu zure adiskide onenak

adiskideak



Zein bide hartuko du Xigortxok bere adiskideak aurkitzeko?




bidea




Errota

Mandioko gara
eskutan duela
pozez dabil errotaria;
murmurioz beterik
abian da ura;
harria biraka,
irina sortaka.

A. Fernández Grillo



garia




Identifika itzazu objektu hauek eta bilatu zein dendatan saltzen diren



erosi



Bila itzazu marrezkien arteko ezberdintasunak



landa/hiria




Zer behar dugu ogia egiteko?



okindegia



Pareka itzazu gaia eta jakia



kakaoa



Ingura itzazu ogitartekoz jan ohi ditugun jakiak



txokolatea



Esaldiak osatzen

mokotxin



Xigortxo munduan barrena



Behin batean bazen ogi bat, ogitartekoen herrialdean bizi zena. Xigortxo zuen izena eta bera bizi zen lekuan ogiak luzangak ziren, urre kolorekoak eta gandor moduko bat zeukaten azalean.

Egun batean, Xigortxok bere aitatxori esan zion oso ogi bitxiak ikusi zituela liburu batean: borobilak, azalik gabeak eta usain berezia zutenak. Eta ea nongoak ziren ogi haiek galdetu zion aitatxori.

Aitatxok, honela esan zion:

—Begira, seme, ogiak mundu guztian daude, eta era guztietakoak gainera: txikiak, potoloak, azaldunak, azalik gabeak, borobilak, gurinezkoak, hazidunak...

Xigortxok pentsatu zuen mundu osoa bisitatu nahi zuela, beste lekuetako ogi guztiak ezagutzeko.

Horretan ari zela, bere adiskide Mokotxin txoria hurreratu zitzaion Xigortxori. Mokotxin ogitartekoen herrian izaten zen askotan. Xigortxo hain pentsakor eta isilik ikusirik, esan zion.

—Kaixo, Xigortxo, zer gertatzen zaizu hain isilik egoteko?

—Pentsatzen ari naiz munduko beste ogi batzuk nola ezagutu.

—Nahi izanez gero, nik lagundu ahal dizut, badakizu hara eta hona ibiltzen naizela munduan zehar. Zure gidaria izan naiteke.

—Adiskide maitea, oso zoriontsu egiten nauzu. Zurekin bai lortuko dudala!

Eta horrela, Xigortxo eta Mokotxin bidean jarri ziren munduko ogi guztiak ezagutzeko asmoz.

Bidaia hasi bezain laster, Mokotxinek esan zuen.

—Herri batzuetan ez dute ogirik jaten, arroza jaten dute.

—Orduan, nora joango gara? —galdetu zuen Xigortxok.

—Lehenik, galsoro zabalak dauden lurraldera joango gara.

Goiz oso batez hegan egin ondoren, Mokotxinek esan zuen:

—Iritsi gara!

Xigortxok behera begiratu zuen, eta lur-sail horiak ikusi zituen, bete-beteak.

—Ikusten, Xigortxo? Galsoro helduak dira, mozteko prest daudenak.

—Eta pertsona haiek zer egiten dute? makina haien gainean.

—Garia mozteko makinak dira.

Xigortxo txundituta zegoen, dena zen galdera eta galdera. Mokotxinek erantzun egiten zion, gauza batzuk ezagutzen ez zituen arren.

Bat-batean, beste eremu batzuk ikusi zituzten, eta, bertan, hostoz beteriko zuztar berdeak.

—Eta hori, zer da hori?

—Ez nago oso ziur, baina uste dut artoa dela —erantzun zion Mokotxinek.

Bi adiskideak bideari ekin zioten, eta, lur-sailak amaitu zirenean, hirira iritsi ziren.

Izugarri handia zen, etxe altu-altuak zituen, eta kaleetan pilaka zebilen jendea, eta autoak, zarata, usainak...

—Hemen ogia erosiko dugu —esan zuen Mokotxinek.

—Zer esan nahi du “erosi” —galdetu zuen Xigortxok.

—Gogoan al dituzu garia moztan ari ziren pertsona haiek? Bada, lan hura egitearren, dirua ematen diete, eta diru horrekin behar dutena erosten dute... Oso lan gogorra da!

—Baina guk ez daukagu dirurik!

—Egia da, bai; eta zer egin? Laguntza eskatu beharko dugu.

Pixka bat pentsatu ondoren, hauxe esan zuen Mokotxinek.

—Hara!, nire adiskide txoriei eskatuko diegu laguntza.

Eta txoriek atsegin handiz eman zieten laguntza. Handik gutxira, ogi borobilak ekarri zituzten txoriek, opilak...

Eskerrak eman eta agur esan ondoren, berriro bidean jarri ziren Xigortxo eta Mokotxin. Xigortxo neka-neka eginda zegoen eta loak hartu zuen. Bat-batean, Mokotxinen ahotsa entzun zuen:

—Aizu, erne, ailegatzan ari gara eta. Asko gustatuko zaizu leku hau, hemen ere badira galsoroak, baina ez orain arte ikusitakoak bezalakoak, hemen ez dute makinarik erabiltzen, beste lanabes batzuk erabiltzen dituzte, mekanizatu gabeak. Soroetako lana oso gogorra da, eta leku batzuetan, jendeak lan asko egin arren, ez dute behar dituzten gauzak erosteko haina dirurik.

—Hemen ere ba al dituzu txori adiskideak? —galdetu zuen Xigortxok.

—Bai, baina ez dugu haien laguntzarik behar. Hemen nekazari asko ezagutzen ditut, ogia egiten dakitenak.

Izan ere, bisitatzen zituzten tokietan oso harrera ona egiten zieten, eta pozik zeuden Mokotxinen bisitarekin.

Horrela, ogi batzuek Xigortxo eta Mokotxinekin abiatu nahi izan zuten.

Egun batzuen buruan, Mokotxinek esan zion:

—Berriro abiatzeko ordua da.

—Nahi duzunean, Mokotxin, ni prest nago.

Egun osoan eta gau osoan egin zuten hegan, gelditu gabe. Azkenean, esan zuen Mokotxinek:

—Iritsi gara.

—Zein hiri ederrak! —esan zuen Xigortxok.


—Oso pertsona berezia bizi den tokira joango gara, asko gustatuko zaizu hura ezagutzea.

Hurbildu ahala, oso usain ezaguna sentitu zuen Xigortxok.

Non gaude? —galdetu zuen Xigortxok.

—Okindegian. Ikusten al dituzu ogi horiek? Ea horiek ere gurekin etorri nahi duten.

Adiskideak zertara etorri ziren jakin zuenean, lanean hasi zen okina. Bi ordu geroago, ogi pare usaintsuak eskuetan zituela etorri zen. Eskerrak emanda, agurtu eta, denborarik galdu gabe, bidean jarri ziren berriro.



—Eta oraingoan, etxera! Heldu, Xigortxo. Arin-arin egingo dut hegan eta.

Herrialderako bidea luzea zen eta oso nekaturik zeuden, baina etxera iritsi eta ikusitakoa azaltzeko gogoak indarra ematen zieten.

Goiz osoa hegan egin ondoren, Xigortxok behera begiratu zuen.

—Zer dira lur-sail horiek?

—Kakao-soroak dira eta jendea lanean ari da —erantzun zuen Mokotxinek.

—Eta zer egiten ari dira etxola hartan?

—Ez dakit?

—Jaitsi, eta ikustera joango gara?

Lur hartzean, fruitu handi bat ateratzen ikusi zuten, kakaoa zen; ireki, ale guztiak atera eta eguzkitan jartzen zituzten, lehortzeko. Ogi batzuek herrialde hartan geratzea proposatu zuten. Baina ideia borobilagoa bururatu zitzaion Xigortxori: kakaoa ogitartekoen herrira joatera gonbidatuko zuten. Proposamena onartuta, agur esan zioten elkarri. Gero, berriro ekin zioten bideari, kakaoarekin batera, poz-ponik abenturan parte hartzeagatik.

Azkenean, beren herrialdera iritsi ziren. Xigortxoren aitaxo oso pozik zegoen semea eta Mokotxin berriro ikusi eta elkarrekin egoteagatik. Atsedean pixka bat hartu ondoren, kakaoa erakutsi zion aitaxori.

Ikustean, aitaxok esan zuen:

—Esan didatenez, kakoarekin txokolatea egin daiteke. Izeba Erroseri galdetuko diogu ea egiten dakien.

Hurrengo goizean, usain gozo-gozoa zetorren izeba Erroseren etxetik.

—Ba al dakizue zer zen? Horixe bera. Txokolatea.

Orduraz geroztik, ogia eta txokolatea beti dabilta elkarrekin.

Eta hemen amaitzen da gure ipuina. Xigortxok, Mokotxiken laguntzarekin, bere asmoa bete zuen: leku askotako ogi ezberdinak ezagutzea.

